



Aldez aurreko kontsulta publikoa, Nafarroako Foru Komunitaterako Doako Laguntza Juridikoaren Erregelamendua onesten duen Foru Dekretuaren Proiektuari buruzkoa.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publikoari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 133.1 artikulua xedatzen duenez, erregelamendu proiektu bat egin aurretik, kontsulta publiko bat sustatuko da, Nafarroako Gobernu Irekiaren Atariaren bidez, non jasoko baita zer iritzi duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta ordezkaritza handieneko erakundeek, honako hauei buruz:

- a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak
- b) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Egon litezkeen beste aukera batzuk (arauemaileak eta arauemaile ez direnak).

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 60.1 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, Nafarroako Foru Komunitateari dagokio Botere Judizialari eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari buruzko lege organikoek Estatuko Gobernuari aitortzen edo esleitzen dizkioten ahalmen guztiak erabiltzea, salbu eta ahalmen militarra.

Maiatzaren 14ko 813/1999 Errege Dekretuak Nafarroako Foru Komunitateari transferitu zizkion Estatuko Administrazioaren eginkizunak, Justizia Administrazioaren funtzionamendurako baliabide materialen eta giza baliabideen horniduraren arloan. Transferentzia hori 1999ko urriaren lehen gauzatu zen.

Doako Laguntza Juridikoari buruzko Legeak indarra hartzearen ondorioz, aldaketa sakonak gertatu ziren doako laguntza juridikoaren (lehengo pobreziaren onura) eskubidearen aitorpenean, baliabideen askitasunik eza frogatzen dutenentzat. Lege horrek eskubidea aitortzeko prozeduraren desjudizializazioaren alde egiten du, organo kolegiatu administratibo baten esku uzten baitu, Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeen esku, hain zuzen ere. Hala ere, espedienteen tramitazioa abokatuen elkargoen aurretiko lanean oinarritzen da, haiek betetzen baitituzte, orientazio juridikorako zerbitzuen bidez, honako lan hauek:

eskabideen ohiko tramitazioari ekin, asmoak aztertu eta behin-behineko izendapen edo ukapenak erabaki.

Nafarroako Foru Komunitatean aplikatzekoa den Doako Laguntza Juridikoaren Erregelamendua martxoaren 21eko 17/2012 Foru Dekretuaren bidez onartu zen, zeinaren bidez indargabetu zen maiatzaren 21eko 42/2007 Foru Dekretua.

Argitaratu zenetik 8 urte baino gehixeago igaro direla, beharrezkoa da Nafarroako Foru Komunitatean aplikatzekoa den Doako Laguntza Juridikoaren Erregelamendua egokitzea denbora honetan gertatu diren lege-erreformetara. Erreforma horietako batzuk oso garrantzitsuak dira urtarrilaren 10eko 1/1996 Legeak ezarritako doako laguntza juridikoaren sistemarako, eta horien artean nabarmentzekoak dira 3/2013 Errege Lege Dekretua, otsailaren 22koa, Justizia Administrazioaren arloko tasen araubidea eta doako laguntza juridikoaren sistema aldatzen dituen; 41/2015 Legea, urriaren 5koa, Prozedura Kriminalaren Legea aldatzen duena zigor-arloko justizia arintzeko eta prozesuko bermeak indartzeko; 42/2015 Legea, urriaren 5koa, Prozedura Zibilararen Legea aldatzen duena; 2/2017 Legea, ekainaren 21koa, Doako Laguntza Juridikoari buruzko urtarrilaren 10eko 1/1996 Legea aldatzen duena eta 3/2018 Legea, ekainaren 11koa, Europar Batasunean zigor-arloko ebazpenak elkarri aitortzeari buruzko azaroaren 20ko 23/2014 Legea aldatzen duena Europako Ikerketa Agindua arautzeko.

Aipatutako arauen bidez egindako aldaketek doako justizia sistemaren funtsezko alderdiei eragiten diete, hala nola doako laguntza juridikorako eskubidearen hedapena, ex lege onuradunen eremu subjektiboaren hedapena, doako laguntza juridikoaren batzordeen osaera, gatazkak bitartekaritzaren edo gatazkak konpontzeko judizioz kanpoko beste bitarteko batzuen mende jartzeko aukerari buruzko informazioa, legeak berariaz debekatzen ez dituen kasuetan, eta eskubidearen eduki materialtzat hartzen denean, ofizioz izendatutako profesionalak ordeztzeko aukera.

Beste alde batetik, indartu egiten da prestazio-jarduera hori nahitaezko zerbitzu publikoa dela, eta bermatu egiten da botere publikoek behar bezala ordainduko dutela, aitortuta zerbitzu hori ematen duten profesionalen dagozkien kalte-ordainak ordainduko zaizkiela.

Doako laguntza juridikoaren sistemari eragiten dio, gainera, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko urriaren 26ko 2016/1919 (EB) Zuzentarauak, zigor-arloko prozesuetan susmagarriei eta akusatuei eta atxilotzeko

Europako agindu-prozedura baten bidez bilatutako pertsonei doako laguntza juridikoari buruzkoak.

Nafarroako Foru Komunitatean aplikatzekoa den Doako Laguntza Juridikoaren Erregelamendua aipatutako legeberrikuntzetara egokitzeke, eta zerbitzuaren prestazioan eta kudeaketan zenbait hobekuntza sartzeko, txanda espezializatuak eta prestakuntza espezializatua sartzeari dagokionez, zerbitzuaren prestazioari eta espediente elektronikoaren kudeaketari dagokienez, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuan uste dugu ezinbestekoa dela egungo erregelamenduaren ordezkari hori arautuko duen foru dekretu berri bat ezartzea, arauen sakabanaketa saihesteko.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 18an

JUSTIZIAKO GIZARTE ZERBITZUKO ZUZENDARIA